



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko irailaren 26a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroan ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Egungo krisi egoeran, ekintzailtza eta lan autonomoa enplegu-sormenerako alternatiba gisa eskaintzen diren tresnak bilakatu dira. Auto-enplegua egiazki erantzun baten gisara egituratu da egoera zail honetan, tamalez soilik doikuntza-neurriak aplikatzen ari baitira, nahiz eta demostraturik dagoen doikuntza horiek berez gorpil gaiztoa dakartela: enplegu-suntsipen handiagoa, kontsumitzeko ahalmen eza eta, horrenbestez, atzeraldi handiagoa.

Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeko foru lege proposamen honekin, bilatzen dugu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak benetako konpromiso eraginkorra hartzea ekintzaile hauekin eta langile hauekin, zeren eta, beren kabuz, eta batzuetan behar den laguntza eta orientabidea eduki gabe ere, krisiari aurre egin nahi baitiote, auto-enpleguaren eta beren enpresa eratzearen aldeko apustua eginez.

Proposamen honek, horrenbestez, ekintzaile-tzarekin eta lan autonomoarekin lotutako kontzeptu horiek mugatu nahi ditu aurrea; ondoren, langile horiek egiteko prest dauden apustu pertsonalak errazteko neurri eta tresnak taxutu nahi ditu.

Garrantzitsua da proposamen honen xedearen aipamena egitea: "Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan, lan autonomoa guztiz eta eraginkortasunez bultzatzera orientatutako politika publikoak garatzea, Nafarroako enpresa-ehundura garatzeko tresna gisa."

Proposamenean, gainera, lan autonomoaren bultzapenak oinarritzat izanen dituen printzipio gidariak jasotzen dira, eta printzipio horien artean, hain zuzen ere, lehiakortasunak, produktibitateak, berrikuntzak eta teknologiak toki nabarmena hartzen dute, bestelako elementu batzuekin batera: lan autonomoaren kalitatea hobetzea; lan autonomoaren egonkortasuna; profesionalizatzea; lana eta familia uztartzea; laneko segurtasuna eta osasuna; neurketa eta arbitraje mekanismoen sustapena; eta administrazioaren sinplifikazioa, aukeren berdintasuna, lankidetzeta eta elkartegintza sustatzea, besteak beste.

Azken batez, kontua da ibilbide-orri oso bat zedarritzea, Nafarroako Gobernuak esparru ekonomiko gero eta garrantzitsuago hau indartze aldera egin beharreko lana orientatzeko.

Egia da kontua ez dela hutsetik hastea, baizik eta gaur egun erabiltzen diren tresna batzuk antolatzea eta beharrezkotzat jotzen diren beste bat-

zuk erabiltzen hastea, jakinda errealitateak eragozten digula nahi genituzkeen baliabide ekonomikoak edukitzea; eta, horrenbestez, alde batera utzi gabe kontu publikoei dagokienez zein inguruabar dauzkagun.

Azken batez, enplegu autonomoaren sustapenean azpimarra jartzen duen lege proposamen bati buruz ari gara, eta horretarako, zenbait arlotan tresna eta neurriak bideratzeko ahaleginak egiten ditu: babes teknikoa, aholkularitza, sinplifikazio administratiboa, ekintzailetasuna sustatzea, unibertsitateekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin lankidetzan jardutea. Bestalde, foru lege proposamenak zenbait pizgarri ezartzen ditu eta dirulaguntza batzuk sistematizatzen ditu, beren kabuz nahiz beste batzuekin batera ekintzaile izan eta beren enpresa-proiektua bultzatu nahi duten langileei aukera gehiago eta aukera hobek eskaintze aldera.

Foru lege proposamen honek, halaber, ekonomia sozialaren aldeko apustua egin nahi du, zeren eta jotzen baitu hori tresna erabilgarria dela enpresen ehundura –krisia baino lehen eta krisia bitartean hain emaitza onak ematen ari dena– dinamizatzeke.

Halaber, finantziario-tresna publiko zein mistoak (publiko-pribatuak) ezartzen dituen foru lege proposamena da, tresna finantzarioetan lehentasuna krisian dauden enpresetako langileei ematen diena, partaidetzak erosi ahal ditzaten enpresa hori kooperatiba, lan-sozietate nahiz baliagarri eta zuzenbidean onargarri den beste edozein sozietate-modu bihurtzeko, betiere aurrena proiektuen bideragarritasuna aztertuta.

Halaber, proposamenean gizarte inbertsioko funtsak ageri dira, lan autonomoa garatzeko eta ekintzaileari laguntzeko. Maileguetara bideratuta daude, onuradun eta urte bakoitzeko gehieneko batekin, proiektuaren % 80 hain zuzen, interes txikiekin. Balioa ematen zaio mikrofinantziario eta mikrokreditu sozialen sistema bat taxutzeko aukerari.

Zenbait figura ere sortzen da: lan autonomoan eta ekintzaileei laguntza ematen aditua den bitartekari finantzarioarena, kasu, zeina aholku-tresna bat baita finantziarioa lortzeko prozesuan edo prozesuetan. Halaber, inbertsio-egile pribatu soziala eta gizarte inbertsioa babesteko entitateak badaude: horiek, izan ere, modu aktiboan lagunduko diete autonomoei, eta ekintzaileen sozietateen gizarte kapitalean parte hartuko dute jarduera ekonomikoaren etapa batean.

Eskumenak ematen zaizkio Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, funtsezko erakunde bat dela jotzen

baita, haren bitartez abian jartzeko proposamenaren edukitik eratortzen diren politikak, honako funtzio hauekin: azterlanak egitea, merkatuari buruzko prospekzioak egitea, bitarteko teknikoak eskueran edukitzea –berekia nahiz hirugarrenekin behar diren hitzarmenak eginez lortutakoak– eta abar.

Administrazioak arlo honetan izan duen funtzionamenduari buruzko jarraipena egiteko, funtsezko bi tresna sortzen dira: Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua eta Lan Autonomoaren Behatokia. Halaber, berariaz aipatzen da lan autonomoaren plan estrategikoaren sorrera.

Azken batez, arestian esan den bezala, foru lege proposamen honek xehetasunak ematen ditu ibilbide-orri bat sortzeari buruz, hain zuzen ere ekintzailetza eta lan autonomoa sustatze aldera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren konpromiso tinkoaren bitartez.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Aplikazio-esparrua.

Lege hau aplikatuko zaie ohiko moduan, pertsonalki, zuzenean, beren kontura eta beste pertsona baten zuzendaritza- eta antolamendu-esparrutik kanpo jarduera ekonomiko edo profesional bat garatzen duten pertsonen, irabazi-asmoarekin, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean, besteren konturako langileei lana eman nahiz ez eman, Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legeko 1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, lege hau aplikatu beharko zaie Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean ohiko moduan egiten diren lanei; hain zuzen ere, aurreko lerrokadan definitutako pertsonen senideak izan eta Langileen Estatutuaren menpeko langileak ez diren pertsonen eginiko lanei.

Lege hau honako ekintzaile hauei ere aplikatuko zaie: jarduera ekonomiko bat garatu ahal izateko aurreko izapideak egiten ari diren pertsona fisikoak, dela langile autonomoak izateko, dela kooperatibistak izateko, dela lan sozietate baten bitartez nahiz zuzenbidean onartutako edozein merkataritza-formularen bitartez lan egiteko, azken kasu horretan helbide fiskala Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean baldin badago eta tamaina txikiak bada.

Ekintzailearen kontzeptuaren barruan sartu ahalko dira langile autonomoak eta bestelako sozietate-modu batzuetako kideak, baldin eta, kasuan kasu, hogeita lau hilabete baino gutxiago egin

badituzte eratu zirenetik edo Gizarte Segurantzaren alta eman zutenetik, non eta ez diren aurreko jardueraren baten jarraipena edo hedapena.

2. artikulua. Kanpo utzitako kasuak.

Joko da lege honen aplikazio esparrutik kanpo berariaz uzten direla aurreko artikulua baldintzak betetzen ez dituzten zerbitzuen prestazioak; honakoak bereziki:

a) Lan-harremanak; dela lan arloko legediaren menpekoak, Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera, dela funtzionario-arloko legediaren menpekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritakoaren arabera.

b) Sozietate baten forma juridikoa daukaten enpresetan administrazio-organoetako kontseilari edo kide karguan jardute hutsera erabat mugatuta dagoen jarduerak, Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera.

c) Izaera berezia duten lan harremanak, Langileen Estatutuak eta xedapen osagarriek aipatzen dituztenak.

d) Merkataritza sozietateetako kideak, sozietate horietako kideetako batzuk bi urte baino gehiagoko jarduerak duten enpresak direnean edo hiru-rehun mila euro baino kapital sozial handiagoa dutenean.

e) Inolaz ere ezin izaneren dira ekintzailatzat hartu Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuko VII. Tituluko VI. kapituluaren araututako ondare-sozietateen araubidea aplikatzen zaien sozietateak.

3. artikulua. Ekintzailearen eta langile autonomoaren xede soziala.

Ekintzaileak eta langile autonomoak edozein jarduerak ekonomiko eduki ahalko dute xede sozialtzat edo jarduntzat.

4. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateak eskuratutako eskumenen esparruan garatzea lan autonomoaren erabateko bultzatze eraginkorrerara orientatutako politika publikoak, erki-degoko enpresen ehundura produktiboa garatzeko tresna gisa eta beren jarduerak beren kontura gauzatzen duten profesionalak babeste aldera. Hala ere, xede du lan autonomoa lagundu eta sustatzea, Langile Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legeko V. tituluan eta seigarren xedapen gehigarrian ezarritako guztian.

5. artikulua. Printzipio gidariak.

Lan autonomoaren bultzapenean bereziki honako printzipio gidariak izanen dira nagusi:

a) Hobetzea lurraldeko enpresa-ehundura eta Nafarroako ekonomiaren lehiakortasunean, produktibitatean, berrikuntzan eta teknologian oinarritutako hazkunde-eredu bat, betiere garapen iraungarriko esparruaren barruan.

b) Lan autonomoaren kalitatea babestea, haren egonkortasuna, profesionaltasuna, familia-bizitzarekiko bateragarritasuna eta jarduerak ekonomikoaren errendimendu altua sustatze aldera.

c) Lan autonomoaren segurtasuna eta osasuna hobetzea eta lan arriskuei aurrea hartzeko jarduerak koordinatzea.

d) Elkartegintza sustatzea eta lan autonomoa ordezkatzeko erakundearen parte-hartze soziala bultzatzea.

e) Gatazkei konponbide autonomoa emateko tresnak sustatzea, bitartekaritza eta arbitraje tresnak ezarri.

f) Lan autonomoaren babes soziala hobetzea, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

g) Lan autonomoaren arloko politika publikoen gobernuak, kalitatea eta ebaluazioa, eta saihestea bere jarduerak ekonomiko edo profesionala administrazio publikoekin modu autonomoan betetzen duenaren harremanean beharrezkoak ez diren zama administratiboak.

h) Generoko ikuspegia lege honen esparruan garatzen diren ekintzak diseinatu, planifikatu, bete eta ebaluatzerakoan, emakumeen eta gizonen arteko aukeren berdintasuna bermatuz.

i) Sinplifikazio eta arintasun administratiboa enpresak sortzeko, eta merkatu mota guztietan trabak gutxitzea, bereziki sortzen ari direnetan, eta bereziki jarduerak lizentziak eskuratzerakoan, lizentzia horiek ematea administrazio autonomoaren eta tokiko administrazioaren eskumenekoa den kasuetan. Izapide eta baldintza fiskalak sinplifikatzea.

j) Ekintzaileentzako eta lan autonomorako finantziario eredu berariazkoa erraztea.

k) Mikrofinantziario sistemak ezartzea ekintzaileentzako eta lan autonomorako.

l) Arrisku kapitalaren, hazi kapitalaren, mailegu parte-hartzaileen eta abal eta bermeen sARBIDEEN sektorea dinamizatzea.

m) Ekintzailearentzako eta lan autonomorako pizgarri fiskalak.

n) Lankidetzak ekonomiko enpresarialeko formulatutako pizgarri ekonomiko eta fiskalak sustatzea, bai autonomoentzat, bai ekintzaileentzat.

ñ) Lan autonomorako eta ekintzailetzarako prestakuntzako politika berariazkoa garatzea.

o) I+G+B delakoaren arloan, lan autonomorako eta ekintzailetzarako berariazko politika bat garatzea, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietarako sarbidea eta kudeaketarako tresna aurreratuak erraztea.

II. KAPITULUA

Enplegu egonkorra sustatzea

6. artikulua. Enplegu autonomoa sustatzeko eta ekintzaileari laguntzeko politika aktiboak.

1. Nafarroako Gobernuak politika aktiboen multzo integral eta koherente bat diseinatu eta abian jarriko du. Politika horien xedea izanen da esparru horretan lanbide-jarduera eta enplegua sortu, dibertsifikatu, finkatu eta modernizatzea. Politika horiek, nolatan ere, plan, programa eta beharrezko neurri egokiak arautu, finantzatu eta garatzearekin batera, beren baitan hartuko dute kalitatezko enplegu zerbitzu baten prestazioetarako sarbidea, hain zuzen ere Nafarroako Foru Komunitatean aurrera eramaten diren enplegu autonomoko ekimenak garatzeko faseak bultzatzen eta mantentzen laguntzeko.

2. Autoenplegua bultzatzeko eta jarduera autonomoa finkatzeko politika aktibo horiek honako helburuak lortzera bideratuko dituzte jarduketaprograma eta neurriak:

a) Norberaren konturako jarduera ekonomiko edo profesionalaren hasiera eragozten edo zailtzen duten oztopo guztiak kentzea, bai eta norberaren konturako jarduera ekonomikoari eusteko eta hura dibertsifikatzeko eragozpenak ere.

Autoenpleguaren arloan aukeren berdintasunerako eskubidea bermatu eta bultzatzeko, bereziki begiratuko zaie populazio talde batzuek langile autonomo gisa ezartzeko topatzen dituzten zailtasunei.

b) Enplegu autonomoko ekimenak sortu, finkatu eta modernizatzea bideratutako informazioarekin, aholkularitza teknikoarekin, pizgarriekin eta diru-laguntzekin lotutako neurri eta zerbitzuak ezartzearen bidetik sortzen diren lan autonomoko ekimenak erraztu eta laguntzea.

Sustapen politika honek bereziki begiratuko die, baita berariazko ekintza positiboan bitartez

ere, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboen autoenplegu-ekimenei.

c) Ekonomia- eta enpresa-arloko ekintzailetasuna eta ahalmena bultzatu eta laguntzea. Helburu hori erakunde desberdinen bitartez sustatzeko aukera kendu gabe, Nafarroako Gobernuak bereziki bermatuko du haren garapen eraginkorra, hezikuntza sistemaren maila desberdinetan, lanbide heziketaren esparruan modulu berariazkoak eta unibertsitate-karreretan konfigurazio libreko ikasgaiak bultzatuz eta unibertsitatei eta haien fundazioei lotutako enpresak sortzeko berariazko esparruak sustatuz.

d) Ingurune ekonomiko, sozial eta kultural bat sortzea, non autoenpleguko eta enpresa-dibertsifikazioko ekimenak garatzea posiblea izanen den, bereziki enplegu berrien, teknologia berrien eta interes publiko, ekonomiko eta sozialeko jardueren esparruan jokabide berritzaile bat errazten dutenak, eta, oro har, populazioaren ongizate ekonomiko eta sozialaren handitzea dakarten guztiak. Horretarako, bultzatuko da sare sozial profesional eta lurraldekoen sorrera, uneoro autoenplegu ekimenak lagundu eta bultzatuko dituztenak.

e) Lan autonomoaren berariazko esparruan, etengabeko prestakuntza eta lanbidearen arloko berregokitzea sustatu eta bermatzea, enplegagarritasuna, produktibitatea eta jarduera garatzeko arriskuari aurrea hartzeko kudeaketa hobetuz.

f) Langile autonomoek jakintzaren, informazioaren eta komunikazioaren gizartean parte-hartze aktiboa izan dezatela sustatzea, teknologia berrietarako sarbidea eta teknologia horien erabilera erraztuz eta beharrezkoa izan daitekeen aholkularitza tekniko emanaz.

g) Berrikuntza eta garapen teknologiko eta antolamenduzkoen prozesuetarako sarbidea erraztea, haien bitartez areagotzen laguntzeko modu autonomoan egiten den lanaren edo ematen den zerbitzuaren produktibitatea.

h) Finantzaketarako sarbidea erraztea, egitura finantzario berekiak sortzearen bidez, lan autonomoaren sorrera, finkapena eta dibertsifikazioa ahalbidetuz, mikrofinantziarioa tresna berezi gisa erabilita.

7. artikulua. Autoenplegurako politika aktiboen onuradunak.

1. Autoenplegurako politika aktiboen onuradunak izanen dira lege honen aplikazio esparruan sartzen diren pertsonak.

2. Aukera-berdintasunerako eskubidearen berme gisa, programa, neurri eta zerbitzu desber-

dinek lan merkatura sartzeko zailtasun handienak dituzten taldeen behar bereziei begiratuko diete, hain zuzen ere kasuan kasu zehazten direnei. Lehentasuneko arreta-helburu horrek bere barruan bilduko ditu talde hauen aldeko ekintza positiboak. Lehentasuneko arreta-neurri horietan sartu ahal-ko dira, besteak beste, denbora luzez langabezian egondako pertsonak, emakumeak –bereziki azpi-ordezkatuak dauden jarduera-sektoreetan–, generoko indarkeriaren biktimak, terrorismoaren biktimak, gazteak, immigranteak, itzulitako emigranteak, ezgaituak eta gure erkidegoko gutxiengo etnikoetako kideak.

3. Enplegu autonomoa sustatu eta finkatzeko pizgarri ekonomikoetako neurriak lehentasunez zuzenduko zaizkie langilerik ez duten profesional autonomoei edo 5 langile baino gutxiago dituztenei. Halaber, sektore jakin batzuetan berariazko planak diseinatuko dira, haien zailtasuna dela eta.

4. Nolanahi ere, baldintza orokorrak edo berariazkoak ezarri ahal-ko dira jarduketa-neurri mota bakoitzaren arabera.

8. artikulua. Laguntzak eta diru-laguntzak.

1. Berariaz, enplegurako estrategia espainiarren esparruan, eta enplegarritasuna hobetzeko eta enplegu-politika aktiboak erreformatzeko presako neurri buruzko Errege Lege Dekretuak ezarritako eskumen autonomikoaren esparrurako garapen eta exekuzio gisa, langabezian egon eta beren konturako edo ekonomia sozialeko enpresaren esparruko lan bat eskuratu nahi duten pertsonak honakoetarako laguntzak eskuratu ahal-ko dituzte:

a) Autoenplegurako orientazio- eta lanbideratze-ekintzak.

b) Gizarte Segurantzako kuotetarako hobariak, aldi jakin batzuetan, edo zama fiskalen konpentsazioak, unean-unean aplikatzeko den tributu-lege-diak ezarritakoaren esparruan.

c) Jarduerarako edo instalazio berri baterako zuzeneko diru-laguntzak.

d) Inbertsio berriak egiteko edo kapital zirkulazionala osagarria izateko kreditu gisako finantziarioa.

e) Artatze teknikorako laguntzak eta kudeaketa lagundua.

f) Enpresa-kudeaketaren arloko berariazko prestakuntza.

g) Enpresaren jarduerari buruzko publizitatea edo sustapena egiteko laguntzak, dela laguntza zuzenen bitartez, dela komunikabide publikoen

bitartez, 5. artikuluan aipatzen diren printzipio gidariak kontuan izanda.

Halaber, autoenplegurako sarrera kolektiboki sustatzeko, Nafarroako Gobernuak laguntza-sistemak ezarriko ditu langile autonomoen eta ekonomia sozialeko enpresen lanbide-elkarteentzat, hala beren funtzionamendurako, nola gaia zabaldu eta ezagutzera emateko ekintzetarako.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako diru-laguntzen politikaren esparruan, Nafarroako Gobernuak honakoak ezarriko ditu, besteak beste:

a) Banakako ekintzak eta ekintza kolektiboak, autoenpleguan pertsona langabetuak orientatu eta laneratzeko.

d) Lanpostu autonomo bat ezartzeko eta abian jartzeko diru-laguntzak, bai eta autoenplegu-ekimenari jarraipena eman eta hura finkatzekoak ere. Bereziki hartuko dira kontuan Nafarroako enpresa-ehundura hobetzeko planak, 5. artikuluan aipatzen diren printzipio gidariak kontuan izanda.

c) Diru-laguntza finantzarioak, zeinen helburua izanen baita autoenplegu-jarduera sortu, abian jarri eta finkatzeko inbertsioak finantzatzera bideratutako maileguen interesak hein batean estaltzea.

d) Artatze teknikorako diru-laguntza. Haren helburua izanen da jarduera ekonomiko eta profesionala hobetzeko behar diren kanpoko zerbitzuak kontratatzeko finantziario partzialari ekitea, edozein dela ere jardueraren izaera, hain zuzen ere zerbitzu horiek Nafarroako Gobernuak zerbitzu publikoek zuzenean ezin dituztenean eman. Arreta berezia eskaini beharko zaie ekimenen kudeaketa hobetzeko egiten diren inbertsioei, bereziki begiratu merkatu kopuru handiena zabaltzeko baliagarri gerta daitezkeen tresnei.

e) Prestakuntza eta birziklatze profesionalerako diru-laguntza. Haren helburua izanen da guztiz edo hein batean finantzatzea autoenplegatutako pertsonaren prestakuntza egoki eta jarraitua bermatzen duten ikastaroak, horren barne direla jarduera zuzentzeko eta kudeatzeko metodo onenekin lotutako ikastaroak, hain zuzen ere jarduera itxiz gero lanbidean berriz sartu ahal izateko, lanbide-jardueran ahal bezain laster berriz hasi ahal izate aldera. Nolanahi ere, jaso beharreko prestakuntza entitate espezializatuek eman beharko dute, eta entitate horiek beren kaudimen profesionalaren bermea egiaztatu beharko dute.

f) Enplegua sortzeko diru-laguntzak, bereziki lehenengo kontratazio mugagabea egitekoak, kontratatzen direnak senideak izan nahiz ez izan.

g) Beren kontura lanean ezartzen diren pertsonen lana eta familia bateragarri egiteko diru-laguntzak. Haien helburua izanen da bateragarritasunaren eraginkortasuna lagun dezaketen ekintzak bultzatu eta sustatzea.

h) Autoenpleguko ekimenak laguntzeko lankidetzaren sozialaren eta tokiko lankidetzaren sorrera sustatzeko diru-laguntzak, sektore eta lurralde bakoitzean gako diren eragile sozioekonomikoen parte-hartzea errazte aldera.

i) Autonomoen arteko lankidetzaren ekonomikotik heldutako diru-laguntzak.

3. Diru-laguntzen zenbatekoak kasuan kasu finkatuko dira, mota bakoitzari buruzko arau erregulatuaren bidez. Nolanahi ere, zenbateko horiek arau berariazkoen bidez finkatzean, honako printzipio hauek bermatu beharko dira:

a) Nahikotasun ekonomikoa, pizgarriaren eraginkortasuna bermatuko duena, erkidegoaren aurrekontuei buruzko kasuko legean finkatutako baliagarritasun-mugekin.

b) Iraupena, abian jartzen den uneetan jardueraren finkapena errazteko.

c) Zenbatekoaren graduazioa, eskatzaileak jarduera abian jartzeko zailtasunari erreparatuta, betiere kontuan hartuz 5. artikuluan aipatzen diren printzipio gidariak.

4. Nafarroako Gobernuak enplegu autonomoa sustatzeko politika aktiboen eraginkortasuna ebaluatuko du, behar diren maiztasun- eta kalitate-bermeekin, lege honen VII. kapituluaren aurreikusitako terminoetan. Ebaluazio bakoitza ikusita, Nafarroako Gobernuak, kasua bada, hartatik eratorzen diren zuzenketak ezarriko ditu.

8. artikulua. Lan autonomorako finantziazioa eta ekintzaileari laguntzea:

A) Lan autonomoa garatzeko eta ekintzaileari laguntzeko inbertsio sozialeko funtsak:

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak bultzatuko du izaera publikoko edo izaera misto publiko-pribatuko inbertsio sozialeko funtsen sorrera. Funts horiek bideratuko dira lan autonomoari, ekintzaileei eta enpresa berritzaileei laguntzera, kasua bada parte hartuz partaidetza-kontu gisa edo kapital sozialean, eta enpresa-kudeaketari babesa emanez.

Pizgarri bereziak emanen dira autonomoen berezko egitura ekonomikoak sortzeko: kooperatibak, interes ekonomikoko elkarteak edo lankidetzaren ekonomiko enpresarialerako bestelako moduak, tinko parte hartuz entitate horien funtsean, bai

emaitza ekonomikoei dagokienez, bai kapitalari edo enpresen kudeaketari dagokienez, betiere funtsaren partaidetza kapitalaren % 49ra mugatuz.

Funtsean parte hartzeko lehentasuna izanen dute krisian egon eta kasuko enpresa kooperatiba, lan sozietate edo zuzenbidean onartutako beste edozein gisara bilakatzeko partaidetzak erosi nahi dituzten langileek. Funtsaren partaidetza proiektuaren bideragarritasunaren menpean egonen da.

Berariaz zuzkituko da lan autonomoa garatzeko eta ekintzaileari laguntzeko inbertsio sozialeko funts bat. Funtsaren helburua da lan autonomoaren eta ekintzaileen lanaren finantzaketa hobetzea, eta erabiliko da maileguak emateko, onuradun eta urte bakoitzeko gehieneko muga batekin, proiektuaren balioaren % 80koa hain zuzen, interes-tasa txikiagoarekin. Funts honi atxiki ahalko zaizkio autonomoen sektorearteko elkarteak, enpresa txiki eta ertainen sektorearteko elkarteak eta ekintzaileen elkarteak, bai eta lan autonomorako eta ekintzaileei laguntzeko programa berariazkoak garatzen dituzten fundazio edo entitateak ere.

Halaber, kopuru zehatzak zuzkituko dira mikrofinantziazioko eta mikrokreditu sozialen sistema autonomiko bat sortzeko.

B) Lan autonomoaren eta ekintzaileari laguntzearen arloko bitartekari finantzarioak.

Lan autonomoan eta ekintzaileei laguntzen espezializatutako bitartekari finantzarioaren figura sortzen da.

Autonomoei eta ekintzaileei finantziazioa lortzeko prozesuan laguntza eta aholkua emateko tresna baten gisara eraten da.

C) Inbertsio-egile pribatu soziala eta inbertsio soziala laguntzeko entitateak.

Inbertsiogile sozialen figura sortzen da: langile autonomoekin tinko lankidetzan diharduten pertsona fisikoak dira, edo ekintzaileen sozietateen kapital sozialean parte hartzen dutenak, jarduera ekonomikoaren etapa batean, beren ondarearen zati bat erabiliz onura ekonomiko edo sozial bat lortzeko.

Halaber, inbertsio sozialari laguntzeko entitateen figura sortzen da: beren esperientzia profesionalarekin autonomoen eta ekintzaileen jarduera ekonomikoen kudeaketan parte hartzen duten profesionalak osatzen dituzte.

Entitate hauek elkarte edo fundazioaren forma juridikoa izanen dute eta irabazi asmorik gabekoak izanen dira, nahiz eta beren kide aktiboen jarduera ordainpekoa izan ahalko den.

D) Inbertsio hauetarako pizgarri fiskalak:

Erkidegoko Gobernuak berariazko sistema bat ezarriko du inbertsio hauetarako eta laguntza-entitateei pizgarri fiskalak emateko.

9. artikulua. Enplegu autonomoaren esparruan sartzea eta arlo horretako orientabideak. Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

1. Nafarroako Gobernuak, toki entitateen parte-hartzearekin, politika eraginkor bat jarriko du abian, lan merkatuan lan autonomoko ekimenen bitartez sartzeko eta arlo horri buruzko orientabideak emateko. Politika horren oinarritzko helburua izanen da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez aholkularitza integraleko jarduera eraginkor bat ematea lurraldearen barruan autoenplegurako aukerez baliatzeko interesa duten pertsonen, arreta berezia eskainita enplegu bila ari diren pertsonen. Zerbitzu horrek autoenplegu planaren ziklo integralaren kudeaketa jasoko du, honako faseak barne direla: informazio egokia, orientabide nahikoak, prestakuntza egokia eta behar den gaikuntza.

2. Lanbidean sartzeko eta lanbideari buruzko orientabideak emateko zerbitzu hauen eraginkortasuna bermatze aldera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bere gain hartuko ditu, besteak beste, lurraldeko lan merkatuari buruzko azterlan bat eta indusketa bat egiteko eginkizuna, eskatzen diren enplegu autonomoko formulak garatuz, ase daitezkeen premia ekonomiko eta profesionalak identifikatu eta kokatze aldera.

3. Azterlan- eta indusketa-eginkizun hori betetzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lehentasunak emanen dizkie baliabide tekniko berekiei eta bere profesionalen. Hala eta guztiz ere, eraginkortasun eta espezializazio helburuei erreparatuta, kasuko hitzarmenen bitartez, izen aitortua duten eta arlo honetan esperientzia egiaztatzen duten bestelako entitate batzuekin lankidetzan aritzera jo lezake.

4. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eraginkorren jotzen dituen lankidetzak moduak bultzatuko ditu toki entitateekin eta eragile sozioekonomikoekin, xede hauek lurralde-esparru osoan bete daitezzen.

5. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak arreta berezia eskainiko die Nafarroako Foru Komunitatean ekonomikoki menpekoak diren autonomoen araubidean beren jarduera betetzen duten pertsona guztien laneratze- eta orientabide-ekintzei. Lan honek bere baitan hartuko ditu ekonomikoki menpekoa den langile autonomoaren eta enpresa bezeroaren arteko bitartekaritza ekintzak, eta kon-

tratu mota horretako eskaintzak eta eskariak kudeatzeko zerbitzu egoki bat eduki beharko du.

6. Ekonomikoki menpekoa den lan autonomoari begira ekintza hauek eraginkorrak izan daitezen errazteko, bultzatuko da lankidetzak hitzarmenak egitea arloko ordezkaritza duten lan autonomoko lanbide-elkarteekin.

10. artikulua. Lanbide prestakuntza eta kualifikazioa.

Enplegurako Lanbide Heziketaren Plan Nazionalaren esparruan, Nafarroako Gobernuak bermatzen du beren jarduera lan autonomoko araubidean garatzen duten pertsonen prestakuntzarako eta kualifikazio profesionalerako eskubidea, haien esparrurako berariaz diseinatutako lanbide heziketako programetara sarbidea emanaz. Programa hauetan, kontuan hartuko dira Nafarroako Foru Komunitatean garatzen den lan autonomoaren errealitatea eta ezaugarri sektorialak.

Programa eta neurri horiek bermatuko dute ekimen horietarako gaikuntza profesionala izatea, bai eta jarduera modu optimoan kudeatzeko gaitasunaren garapena ere.

Urtero, Nafarroako Gobernuak lanbide heziketara bideratuko du aurrekontu berekien nahiz eskualdatutako portzentaje bat, lan autonomoak populazio aktiboan duen presentziaren arabera.

Prestakuntza jarduera horiek gauzatuko dira urtero profesionalen eta langile autonomoen sektore arteko elkarrekin eginiko programa-kontratu- en bitartez.

11. artikulua. Kontratazioaren sustapena enplegu autonomoaren esparruan.

1. Nafarroako Gobernuak neurri pizgarriak ezarriko ditu lan autonomoaren esparruan egiten den lehenengo lan kontratazio mugagaberako.

2. Nafarroako Gobernuak neurri pizgarri berriak ezarriko ditu titularrekin bizi eta familia-jardueran laguntzen hasten diren senideak jarduera ekonomiko eta profesional hauetara sartzeko.

12. artikulua. Berdintasuna eta familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egitea.

1. Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek, beren eskumenen esparruan, emakumeen eta gizonen guztizko parekatzea bermatuko dute enplegu autonomoko ekimenak sortu, finkatu eta modernizatzeko faseetan.

2. Eskubide horren eraginkortasuna bermatu eta bultzatzeko, arreta berezia eskainiko zaio lanbide bizitza familiako bizitzarekin eta bizitza per-

tsonalarekin modu eraginkorren bateragarri egiteko neurrien garapenari. Horretarako, Nafarroako Gobernuak honakoak ezarri beharko ditu:

a) Pizgarriak, partzialki ordaintzeko titularra bere jardueran aldi baterako ordeztzeko langabetu bat kontratatuzetik heldu diren gastuak, familia eta lanbidea bateragarri egitetik heldu diren eskubideak betetzen ari diren kasuetan; esate baterako, honako egoerekin lotutako eskubideak: haurdunaldian zeharreko arrisku-egoerak, edoskitze naturala, amatasuna, aitasuna, adopzioa, harrera edo seme-alabak nahiz senideak zaintzeko lanaldi murrizketa nahiz eszedentzia.

b) Eskubide horietaz baliatzen hasi aurretik pertsona horiek garatzen ari ziren jarduera autonomoan berriz sartzera bideratutako pizgarriak.

c) Ikasketa, ikerketa, prestakuntza-jarduera eta antolamendu-esperientzia berritzaileak sustatzera orientatutako programak, lanbidea eta lana bateragarri egitearen esparrukoak.

13. artikulua. Langile autonomoak lanbidean berriz sartzea.

1. Nafarroako Gobernuak lanbidean berriz sartzearen aldeko politika bat gauzatuko du, enplegagarritasuna hobetzera bideratua, bereziki beren jarduera inguruabar ekonomikoengatik utzi duten pertsonentzat.

2. Xede horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, interesdunen parte-hartzearekin, honakoak eskuratuko ditu:

a) Lanean berriz hasteko ibilbide pertsonalizatu bat. Ibilbide horrek, besteak beste, prestakuntza-neurri batzuk jasoko ditu, pertsona hauei beren aurreko jarduerarekin lotutako jardueretan espezializazio bat emateko, edo, bestela, kasu batean zein bestean, enplegu-aukera handiagoak eskaintzen dituzten sektore berrietara bideratua.

b) Neurri ekonomikoak, onuradunei lanbidean berriz sartzeko ibilbidearen garapenean laguntza ematera bideratuak.

14. artikulua. Enplegu autonomoaren sustapeneko lurralde dimentsioa sustatzea.

1. Nafarroako Gobernuak bultzatuko du toki entitateek zein lurralde-esparru bakoitzeko eragile sozioekonomikoek parte har dezaten enplegu autonomoaren arloko politiken kudeaketan.

2. Horretarako, beste tresna batzuen artean, ekimen pribatuaren eta ekimen publikoaren arteko lankidetzak diseinatu eta haietarako pizgarriak emanen dira, enplegu autonomoko ekimenei laguntzeko. Sare hauen sustapena eginen da

Nafarroako Foru Komunitatean ezarrita dauden edo etorkizunean ezar daitezkeen ezarritako enplegu politiken kudeaketarako lurralde egituren bitartez.

15. artikulua. Emandako laguntzen araubidea.

1. Lege honetan aurreikusitako sustapen neurrien onuradunek bete beharko dituzte haiek arautzen dituen araudi berariazkoak exijitzen dituen baldintzak eta betekizunak. Betebehar horietakoren bat ez betetzeak edo laguntzak erabiltzeak haiek emateko aurreikusi ziren xedeez beste batzuetarako, berarekin ekarriko du emandako laguntza horiek guztiz nahiz zati batean itzuli behar izatea.

2. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura gauzatu da aplikatzeko den legedian jasotako prozedura administratiboetako xedapen orokorren arabera.

3. Diru-laguntzak itzultzeko espedientea izapidetzearen ondorioz antzematen bada aplikatzeko den legedian jasotako arau-hausteren bat egin dela, horretarako ezarritako prozedura beteko da.

III. KAPITULUA

Lan arriskuen prebentzioa

16. artikulua. Lan autonomoan segurtasuna eta osasuna babestea.

Beren kontura lan egiten duten pertsonak beren jarduera ekonomiko eta profesionala laneko segurtasun- eta osasun-baldintza egokietan betetzeko aitortutako eskubideaz guztiz baliatu eta gozatzearen berme gisa, Nafarroako Gobernuak bultzatuko ditu lan arriskuen prebentzioa norberaren konturako lanaren esparruan eraginkortasunez garatu eta sustatzeko behar diren politika publikoak.

17. artikulua. Laneko arriskuen prebentzioa bultzatzea.

Nafarroako Gobernuari dagokio, bere eskumenean esparruan, lan arriskuen prebentzioa eraginkortasunez garatu eta sustatzea, lan autonomoaren esparruan. Horretarako, honako jarduera hauek eramanen ditu aurrera:

a) Aldizka informazio publikoko kanpainak garatzea eta, kasua bada, informazio-kanpaina pertsonalizatuak, berariaz bideratuak jarduera ekonomiko edo profesional batean beren kontura dihardutenei, laneko segurtasuna eta osasuna bermatzeko neurri tekniko eta antolamenduzkoei dagokienez.

b) Beren jarduera autonomo gisa betetzen dutenen sentsibilizazioa bultzatzea, prebentzioaren kultura integral bat garatzeko.

c) Lege honen esparruan sartzan diren subjektuei aholku teknikoa emateko zerbitzu publikoak ezartzea, haiei adierazte aldera nolako neurriak hartu behar dituzten jarduera bakoitzean, lan arriskuaren aurrean prebentzioaren plangintza erabatekoa eta eraginkorra garatzeko.

d) Beharrezkotzat jotzen den kasu berariazkoetan, laguntza ekonomikoak ezartzea, autonomoek baliabide egokiak eduki ditzaten prebentzioaren eta segurtasunaren arloko araudia betetzeko.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Lan Arriskuen Plan Orokorren esparruan, berariazko neurri batzuk ezartzea, arloko politika publikoak garatzera zuzenduak, lan autonomoaren esparruari dagozkionez.

f) Zaintzea beren jardueran diharduten establezimendu eta instalazioek segurtasuna eta osasungarritasuna direla-eta ezarritako betekizunak betetzen dituztela.

g) Legez edo erregelamendu bidez ezartzen direnak, kasua bada.

18. artikulua. Lan autonomoari aurrea hartzeko prestakuntza.

1. Langile autonomoek prestakuntza prebentiborako daukaten eskubidearen eta betebeharraren berme gisa, Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuak, gure erkidegoaren ordezkari diren lan autonomoko lanbide-elkarrekin batera lan eginez, aldizka kudeatuko du prestakuntza-eskaintza prebentibo, orokor eta sektorial bat, berariaz haiei zuzendutakoa, eta hura arduratuko da hartutako prestakuntzari buruzko ziurtagiria egiteaz.

2. Prebentziozko prestakuntzak lan autonomoaren berariazotasunak aurreikusiko ditu, bai eta generoko ikuspegiak eta sektorekoak ere, eta bereziki eraginen die garraioaren eta eraikuntzaren arloko sektoreei, bai eta Nafarroako Gobernuak, lan autonomoan eta Nafarroako Foru Komunitateko ehundura produktiboan daukaten arriskuarengatik eta garrantzi kualitatiboarengatik, erabakitzen dituen bestelakoei ere.

19. artikulua. Ekonomikoki menpekoa den lan autonomorako berariazko programak.

1. Nafarroako Gobernuak bereziki zainduko du ekonomikoki menpekoak diren langileen segurtasunaren eta osasunaren babesa, eta prestakuntza, informazio, sustapen, laguntza eta kontroleko berariazko programak garatuko ditu, haien segurtasuna eta osasuna modu eraginkorrean bermatze aldera. Halaber, esparru honetan berariazko pro-

grama batzuk bultzatuko ditu oro har enplegu-emaileak ez diren langile autonomoentzat.

2. Halaber, berariazko programak garatuko ditu lan autonomoa dela eta, sareko enpresa-lankideztako kasu desberdinetan.

IV. KAPITULUA

Elkartegintza eta parte-hartze soziala

20. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko lan autonomoko lanbide-elkarteak.

1. Nafarroako lan autonomoko lanbide-elkartetzat joko dira autonomoen halako elkarte gisa modu baliagarrian eratuak izateko Estatuko araudian aurreikusitako betekizun orokorrak bete eta beren jarduerak soilik Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan garatzen dituztenak, baldin eta beren helbide soziala Nafarroan baldin badute eta hurrengo artikuluan aurreikusten den Nafarroako Lan Autonomoko Elkarten Erregistro berezian izen emanda baldin badaude.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren elkarteak Elkarten Legean ezarritakoaren arabera arautuko dira, ezertan kendu gabe berezitasun batzuk, beren xedea edo helburua dela-eta horrelako elkarteentzat ezarritako araudi berezitik eta Estatu osoan modu orokor eta zuzenean aplikatzekoa den eta elkartzeko eskubideari buruzkoa den estatu-legeditik eratortzen direnak.

3. Langile autonomoen lanbide-elkarte hauek Elkartzeko Eskubideari buruzko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legean eta haiek garatzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera eratu eta araupetuko dira, arau honek aurreikusitako berezitasunekin.

21. artikulua. Nafarroako lan autonomoko lanbide elkarten erregistro berezia.

1. Nafarroako lan autonomoko lanbide elkarteek Nafarroako Gobernu Lan Zuzendaritza Nagusian berariaz eraturako erregistro berezian izena eman beharko dute. Erregistro hori berariazkoa izanen da eta berezita egonen da departamentu horretan erregistra daitekeen beste edozein sindikatu-erakundek, enpresa-erakundek edo bestelakok daukaten erregistrotik. Izen-emate hori nahitaezkoa izanen da, publikitatearen ondorioetarako, Nafarroako lan autonomoko lanbide-elkargoaren baldintza izateko eta lege honetan aitortzen diren eskubide eta ahalmen berariazkoak aitortzearen ondorioetarako.

2. Elkarte hauek erregistro berezian izena emateak erregistro-eraginak izanen ditu, horri buruz bai elkarten zuzenbidea arautzen duen legedi

orokorrean ezarritakoari begira, bai lan autonomoari buruzko estatuko legedian ezarritakoari begira.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira aipatutako erregistro berezi horren egitura, eginkizunak eta hartan izena emateko eta ziurtagiriak emateko arauak, bai eta antzeko izaera duten beste erregistro ofizial batzuekin izanen dituen harremanak ere.

22. artikulua. Nafarroako lan autonomoko lanbide elkarteen ordezkagarritasuna.

1. Langile autonomoen lanbide elkarte ordezkagarritzat hartuko dira langile autonomoek soilik eratutako elkarteak, sektorearteko izaera dutenak eta Nafarroako Foru Komunitate osoan presente daudenak. Horretaz gainera, nortasun juridiko propioa eta jarduteko ahalmen osoa izan beharko dute, erkidegoko enpresa-erakunde edo sindikatu-erakunde ordezkagarrienetako batek eratuak egonen dira, eta hartan parte hartuko dute eta horrela jardun izanen dute Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legea indarrean sartu zenetik.

2. Halaber, lan autonomoaren lanbide-elkarte ordezkagarritzat joko dira izen emanda dauden, sektorearteko izaera duten eta lurralde esparru horretan behar adinako ezarpena dutela erakusten duten elkarteak, Lan Autonomoaren Estatutua indarrean sartu zenetik eratu direnak eta modu etengabean jardun dutenak.

Kasu honetan, behar adinako ezarpena egiaztatuko da balorazio-prozedura objektibo baten bitartez. Prozedura horretan, honako irizpideak hartuko dira kontuan, Nafarroan daukaten eraginaren arabera ponderatuak: langile autonomoek elkartearen zenbaterainoko afiliazioa daukaten, zuzenean nahiz elkarte harekin federatutako elkartearen bitartez, edo ordezkaritza akordio iraunkorrrak, akordioak eta abarrekoak dauzkaten bitartez; beren ordezkaritza-xedea betetzeko daukaten giza baliabideak eta baliabide materialak; interes profesionaleko zein akordiotan parte hartu duten; eta Nafarroako Foru Komunitateak egoitzak edo ordezkaritza ezartzea.

Ezarpen hori irizpide objektiboekin egiaztatuko da, haien bitartez ondorioztatu ahal izan dadin elkartearen ordezkagarritasuna. Honakoak dira irizpide horiek, besteak beste:

a) Gure erkidegoan lan autonomoaren defentsan azken lau urteetan eginiko jarduera.

b) Administrazio publiko desberdinetan eginiko jarduerak eta kolektibo desberdinekin eginiko interes profesionaleko akordio edo itunak.

Aipatutako irizpideak egiaztatzeke eta baloratzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

3. Lan autonomoko lanbide elkarte ordezkagarriaren izaera aldizka deklaratu eta berraztertuko du horretarako propio eratu den batzorde batek, izen aitortua duten aditu inpartzial eta independenteek osatua.

Erregelamendu bidez ezarriko dira haren osar, eginkizunak eta prozedura arauak. Nolanahi ere, ez ditu bost kide baino gehiago izanen.

4. Lan autonomoko lanbide elkarte ordezkagarriek gaitasuna izanen dute langile autonomoen ordezkari gisa jarduteko dagozkien esparru guztietan eta, berariaz, honako xedeetarako:

a) Ordezkari instituzional gisa jardutea administrazio publikoetan edo ordezkaritza hori aurreikusita daukaten izaera autonomiko nahiz lokaleko bestelako entitate edo erakundeetan.

d) Kontsultatuak izatea Nafarroako Gobernuak lan autonomoaren gainean eragina duten politika publikoak diseinatzen dituenean.

c) Langile autonomoei zuzendutako programa publikoak kudeatzea, legez aurreikusitako terminoetan.

d) Legez nahiz erregelamenduz esleitzen zaion beste edozein eginkizun.

23. artikulua. Elkartegintza sustatu eta bultzatzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek sustatuko dute jarduera ekonomikoa edo lanbide jarduera Nafarroan garatzen duten langile autonomoen interes profesionalen defentsa bere helburu nagusien artean jasotzen duten irabazi asmorik gabeko elkartearen zabalkundea, ezagutza eta eraketa. Halaber, bultzatuko dituzte elkartearen batasuna eta esparru horretan elkarte horiek modu baliagarrian era ditzaketen federazio eta konfederazioak, betiere elkartzeko oinarrizko eskubidearen banakako titularrei eta titular kolektiboiei dagozkien askatasuna eta autonomia errespetatuta.

2. Elkartegintza Nafarroako lan autonomoaren esparruan sustatzearen eraginetarako, aintzat hartuko dira, soilik, lan autonomoaren arloko berariazko lanbide elkarteak edo elkarte horiek partaide diren goragoko esparruko entitateak.

3. Elkartegintza langile autonomoen artean bultzatzerakoan, elkarteak arautzen dituen legedian ezarritakoari begiratuko zaio, horren barne dela interes publikoko elkartetzat deklaratzeko aukera.

24. artikulua. Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua.

Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua da beren jarduera ekonomiko edo profesionala autonomo gisa betetzen dutenen ordezkari diren erakunde eta elkarte guztien parte-hartze instituzionalerako eskubidea lehentasunezko modu gisa bideratzen duen organoa. Nafarroako Gobernuaren eta, kasua bada, tokiko administrazioen kontsulta- eta aholku-organoa da, lan autonomoaren arlo sozioekonomiko eta profesionalerako.

2. Honakoak dira kontseiluaren berriazko eskumenak:

a) Nahitaezko izaera duen baina loteslea ez den txostena egitea lan autonomoaren arloko departamentu eskudunak lan autonomoaren plan estrategikoari buruz eginiko proiektuaren gainean.

b) Nahitaezko izaera duen baina loteslea ez den txostena egitea lege honetan eragina izan dezaketen lege-aldaketei buruz.

c) Nahitaezko izaera duen baina loteslea ez den txostena egitea bikaintasunezko lan autonomoaren bereizgarria arautzeko erregelamenduari buruz.

d) Aukerako izaera duen txostena egitea, kontrakoa berriaz ezartzen ez den bitartean, lan autonomoan eragina duten lege-aurreproiektuei edo dekretu-proiektuei buruz.

e) Aukerako izaera duen txostena egitea, berriaz kontrakoa ezartzen ez den bitartean, lan autonomoaren arloko politika publikoen diseinuari buruz, bai eta Nafarroako Gobernuak kontsulta egiten dien gainerako gai guztiei buruz ere.

f) Lan autonomoari buruzko izaera autonomiko politika publikoen diseinua.

g) Bere kasa edo Nafarroako Gobernuak eskatuta, azterlan edo txostenak egitea bere eskumenaren esparruarekin zerikusia duten gaiei buruz.

h) Nahitaezko izaera duen baina loteslea ez den txostena egitea Nafarroako Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Estrategiaren proiektuari buruz, lan autonomoan eragina duen guztian.

i) Urtero lan autonomoaren arloko departamentu eskudunaren eskutik informazioa jasotzea arloko politika publikoen bilakaerari eta garapenari buruz, berriazko erreferentzia eginez Lan Autonomoaren Plan Integralaren exekuzioari eta haren inpaktuaren ebaluazioari.

j) Bere kideen artean ordezkari bat izendatzea Estatuko Lan Autonomoaren Kontseilurako, Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluan presente dauden langile-elkarteen ordezkari gisa.

k) Barne funtzionamendurako bere erregelamendua egitea.

l) Legez zein erregelamenduz eslehi dakioken beste edozein eginkizun.

3. Kontseilua Nafarroako Gobernuaren eta ordezkari handiena duten autonomoen sektore-arte elkarteen organo parekidea izanen da. Bi aldeek adostu ahalko dute Nafarroako Foru Komunitateko bestelako eragile sozial edo instituzional muntadunek kontseiluan presentzia izatea.

4. Kontseiluaren lehendakaritza egokituko zaio enpleguaren arloko eskumenak dauzkan Nafarroako Gobernuko Departamentuko titularrari. Hori, halere, ez da eragozpena izanen bere egitekoa beste kargu publikodun baten eskuetan uzteko.

5. Kontseiluak osoko bilkuran edo batzorde iraunkor edo berriazkoen bitartez funtzionatu ahalko du.

6. Kontseilua Nafarroako Lan Osasunaren Institutuan ordezkaturik egonen da.

7. Funtzionamendurako behar diren kredituak enpleguaren arloan eskumena duen departamentuaren aurrekontuetan ezarriko dira.

8. Kontseiluaren osaera eta funtzionamendu araubidea erregelamendu bidez zehaztuko dira. Betiere, lege honetako 22. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatien arabera ordezkagarritzat jotako elkar-teek parte hartuko dute horretan.

V. KAPITULUA**Lan Autonomoaren arloan Gatazkak
Ebazteko Sistema Estrajudiziala****25. artikulua.** Sistema bultzatzea.

1. Nafarroako Gobernuak bultzatu eta sustatuko du lan autonomoaren lanbide-esparruan sortzen diren gatazkak bide estrajudizialean ebaztea. Horretarako, sistema bereki bat sortuko du, honako printzipioetan oinarrituta: doakotasuna, azkartasuna, arintasuna, berdintasuna, aldeei entzutea, kontradikzioa eta inpartzialtasuna.

2. Sistema horren bitartez, kontziliazio, bitartekaritza eta arbitraje prozedurak bideratuko dira, lan autonomoaren esparruan jardura ekonomiko edo profesionalaren garapenaren ondorioz sor litezkeen gatazken ebazpen itundua bultzatze aldera.

3. Sistema Nafarroako Gobernuko Lan Zuzendaritza Nagusiari atxikita egonen da. Haren kudeaketak lan autonomoaren arloan ordezkari handiena duten lanbide-elkarteen parte-hartzea bilduko du.

4. Erregelamendu bidez ezarriko da nolako gatazkak izapidetuko diren sistemaren bitartez. Nolanahi ere, gatazka kolektiboen izaera dutenak jasoko dira. Halaber, erregelamendu bidez zehaztuko da sistemaren funtzionamendu efizientea bermatuko duten egitura organikoa, prozedura arauak eta giza baliabideen nahiz baliabide ekonomiko eta materialen beharrezko hornikuntza.

5. Sistemara jotzea, nolanahi ere, aukerakoa izanen da aldeentzat, legeetan aurreikusitako borondatezko arbitraje batera jotzeko beste aukera batzuk bai baitaude, horren barne direla izaera berariazkoa edo sektoriala dutenak.

26. artikulua. Ekintza judizialetan hasi aurreko nahitaezko adiskidetzeta.

Nafarroako Lan Autonomoaren arloko Gatazkak Ebazteko Sistema Estrajudizialak, esparru horretan izapidetzen diren gaietako dagokienez, organo administratibo baten izaera izanen du, ekonomikoki menpekoak diren langileen araubide profesionala dela-eta akzio judizialak betetzeko adiskidetzeko edo bitartekaritzako nahitaezko ahalgina egitearen eraginetarako.

Antzeko eginkizun bat beteko du Nafarroako Lan Auzitegiak, ekonomikoki menpekoak diren langile autonomoen araubide profesionala dela-eta sortzen diren banakako gainerako gatazkei dagokienez. Aurrekoa ezertan kendu gabe, interes profesionaleko akordioetan gatazkak ebazteko berariazko organoak ezarri ahalko dira, legez ezarritako terminoetan.

27. artikulua. Kontsumoko Arbitraje Batzordeetan parte hartzea.

Nafarroako Gobernuak bultzatuko du beren estatutuetan arbitraje-eginkizunak aurreikusten dituzten langile autonomoen lanbide-elkartek Kontsumoko Arbitraje Sistemari –eta bereziki Kontsumoko Arbitraje Batzordeetan– sartu eta parte hartzea.

VI. KAPITULUA

Babes sozialeko bestelako neurriak

28. artikulua. Laguntzak.

Nafarroako Gobernuak babes sozialaren arloko laguntzak emanen dizkie Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean beren konturako jarduerak bat garatzen duten pertsonetara, hurrengo idatz-zatietan ezarritakoaren arabera.

1. Jardueraren hasierarekin lotutako gizarte laguntzak.

Nafarroako Gobernuak, aldizka, laguntza-plan bat ezarriko du foru erkidegoaren lurraldean norbe-

raren konturako jardueretan hasteko. Plan horretan, berariazko laguntzak jaso ahalko dira langabezia-gatikotiaziopeko prestazioaren ordainketa bakarraren modalitatea aukeratzen dutenentzat, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioa ordaintzeko laguntzak ere, diru-sarrerara nahikoak ez izatea edo eskatzailearen adina edo eskatzaile berria izatea bezalako faktoreei, besteak beste, erreparatuta.

2. Gizarte Segurantzaren kuotetarako hobariak.

Nafarroako Foru Komunitateak hitzarmenak izanpetu ahalko ditu Gizarte Segurantzarekin kotizazioetarako hobari gisako laguntzak bideratze aldera, erkidegoarentzat interes berezikoak diren artisautea- edo arte-jarduerak eta kultur jarduerak garatzen dituztenentzat.

3. Jarduera eteteko kasuetarako laguntzak.

a) Nafarroako Gobernuak gizarte laguntzak emanen dizkie behar bezala egiaztatutako arrazoi objektiboak tarteko beren konturako jarduerak eteten dutenei. Laguntza horiek berariaz bideratuta egonen dira jarduerak etetera jarduerak ekonomiko eta profesionala berritze aldera.

b) Kasu horretan, jardueraren titularrak, laguntza-eskariarekin batera, jarduerak edo establezimendua berritzeko edo erreformatzeko kasuko proiektua aurkeztu beharko du, bai eta langile autonomoaren aurrekontu eta inbertsio pertsonalaren proiektua ere.

c) Laguntza horiek emateko terminoak kasuko erregelamenduaren bitartez garatuko dira, Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuei buruzko Legean jasotako aurrekontu-aurreikuspenen barruan.

VII. KAPITULUA

Lan autonomoaren arloko politiken kalitatea eta ebaluazioa

29. artikulua. Zerbitzuen kalitate-sistemak.

Nafarroako Foru Komunitateak lan autonomoaren esparruan garatzen diren zerbitzuen prestazioaren hobekuntza jarraitua sustatuko du, besteak beste aurreikusiz kalitatea ebaluatzeko sistemak, informazio sistemak eta praktika zuzenen gidak.

30. artikulua. Administrazioarekiko harremana lan autonomoaren esparruan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du Administrazioaren eta beren kontura jarduerak ekonomiko eta profesionala betetzen dutenen arteko harreman arin, zuzen eta eraginkorra, gobernu zuzenaren printzipioetan oinarritua, arreta berezia eskainita bitarteko elektronikoko esku-argarri.

31. artikulua. Lan autonomoaren plan estrategikoa.

1. Lan autonomoaren plan estrategikoaren xedea izanen da lan autonomoaren esparruan garatzen diren politika publikoen diseinu orokorra, esparru horretan ematen diren zerbitzuetan eraginkortasun eta efizientzia handienak lortzeko xedez. Plan horretan, aurreko xedea lortzeko behar diren neurri, jarduketa eta baliabideak jasoko dira.

2. Plan estrategikoak bilduko ditu, besteak beste, artatu beharreko premien diagnosi bat, lortu beharreko helburuak eta helburu horiek lortzeko ildo estrategikoak, bai eta honako hauek ere: onetsi eta bete beharreko ekintzen kronograma bat; bitarteko materialen eta giza bitartekoen identifikazioa, azken horien prestakuntza eta kualifikazioa, azken horien prestakuntza eta kualifikazioa, kasua bada, beharrezkotzat jotzen diren departamentuarterako eta administrazioarterako koordinazio-neurriak; eta plana bera ebaluatzeko tresnak.

3. Plan Estrategikoak lanbide-arriskuen prebentzioaren arloko plangintza-jarduketak jasoko ditu; kasu bada, laneko segurtasunaren eta osasunaren Nafarroako estrategiaren barruan.

4. Plan estrategikoak guztiz errespetatuko du emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukeren berdintasuna, eta berarekin batera planak emakumeengan eta gizonengan izan ditzakeen eraginak aztertuko dituen genero-eragineko azterlan bat ere aurkeztu beharko da.

5. Plan Estrategikoarekin batera, haren aplikazioa bermatuko duen txosten ekonomikoa aurkeztu beharko da.

32. artikulua. Lan autonomoaren Plan Estrategikoa egitea.

1. Lan autonomoaren arloko departamentu eskudunari dagokio Lan Autonomoaren Plan Estrategikoa egitea. Plan estrategiko hori Nafarroako Gobernuari aurkeztuko zaio, onetsi dezan.

2. Plan estrategikoa gutxienez ere lau urtez behin egingen da, eta haren proiektua baino lehen nahitaez kontsulta egin beharko zaio Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluari, nahiz eta kontsulta hori ez den loteslea izan.

33. artikulua. Lan autonomoari informazioa emateko zerbitzuak.

1. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean garatzen diren norberaren konturako ekimen ekonomiko eta profesionalen garapenerako, finkapenerako eta, kasu bada, berriztatzerako behar

diren informazio eta aholku tekniko emanen ditu. Aurrera eramaten diren informazioko eta aholku teknikoko jardueretan, arreta berezia eskainiko zaie lan autonomoaren esparruan eragin handiena duten taldeei.

2. Lan autonomoari aholkua eta informazioa emateko zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean lan autonomoa sortu, sustatu eta modernizatzeko aurreikusi diren pizgarrien osagarri bat dira, eta lan autonomoaren arloko departamentu eskudunak emanen ditu.

34. artikulua. Lan autonomoari buruzko zabalpen eta informazio neurriak.

Nafarroako Foru Komunitatean lan autonomoaren ezagutza bultzatze aldera, lan autonomoa aztertu eta zabaltzeko laguntza neurriak ezarriko dira, bai eta auto-enpleguaren kultura sustatzeko neurriak ere.

35. artikulua. Lan Autonomoaren behatokia.

1. Lan autonomoaren arloko departamentu eskudunaren eta Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluaren barruan Lan Autonomoaren Behatokia eratuko da. Horren eginkizuna izanen da foru erkidegoan lan autonomoak duen egoera modu jarraituan aztertu eta analizatzea. Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluari laguntza tekniko emateko organo bat izanen da.

2. Behatoki horrek arreta berezia eskainiko dio enplegu autonomoak lan merkatu autonomikoan duen egoerari, esparru horretako enplegu politikak programatu eta ebaluatzeko.

3. Era berean, behatoki horrek arreta berezia eskainiko dio lanbide-arriskuek lan autonomoaren esparruan duten bilakaerari. Horretarako, lan autonomoarekin lotura duten istripu eta gaixotasunen jarraipena egingen da, honakoak identifikatuz: ukitutako subjektua, istripu edo gaixotasunaren arrazoiak eta eraginak, eta prebentzio-neurriak bete diren ala ez. Halaber, Behatokiak, aldizka, laneko arriskuen mapa sektorialak egingen ditu, haietan generoko ikuspegia ere bilduz, bai eta istripuek eragin handia duten esparru eta jardueri buruzko azterlanak ere.

36. artikulua. Bikaintasunezko lan autonomorako bereizgarria.

1. Lan autonomoaren arloko departamentu eskudunak bikaintasunaren Nafarroako bereizgarria emanen die beren merezimenduengatik edo Nafarroan beren konturako lanbide-jardura garatzean izan duten ibilbidearengatik nabarmentzen direnei.

Bereizgarria emateko kontuan hartuko diren merezimenduen artean, bereziki baloratuko dira izangaiak laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan eginiko jarduketak, bai eta bere jarduera modernizatzeko eta garapen iraungarrian oinarritutako ekonomia baten sustapenean eginiko berrikuntzak ere.

2. Bereizgarria erregelamendu bidez ezartzen diren irizpide eta baldintzen arabera emanen da, haren oinarri buruz Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluari kontsulta egin ondoren.

3. Bereizgarria jasotzeak eskubidea emanen du hura publikoki erabiltzeko kasuko jarduera autonomoaren dokumentazioan eta publizitatean, eta kontuan hartuko da Nafarroako ente publikoekiko kontratu eta lizitazio publikoen ondorioetarako, bai eta, kasua bada, lan autonomorako laguntza publikoak jasotzeko ere.

37. artikulua. Politika publikoen ebaluazioa.

1. Lan autonomoaren arloko departamentu eskudunak aldizka txosten bat eginen du, erregelamendu bidez ezartzen diren terminoetan, Nafarroan lan autonomoaren arloan aurrera eraman diren jarduketei buruz, eta txosten hori Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluari aurkeztuko zaio. Ebaluazioaren oinarria politika publikoen emaitzak izanen dira, bai eta politika horiek herritarrengan duten eragina ere.

2. Ebaluazio horrek bere baitan bilduko du enplegu autonomia sustatzeko hartutako neurrien multzoak izandako eragina.

38. artikulua. Sinplifikazio administratiboa enpresak sortzeko eta izapide administratiboak gutxitzeko.

Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluaren barruan batzorde bat sortzen da, zeina arduratuko baita beharrik gabeko traba burokratikoari buruz informatzeko. Batzorde horrek, bestalde, izapide horiek sinplifikatzeko arauak proposatu ahalko ditu.

Enpresentzako leihatila bakarrak bultzatuko dira, eta haien bidez enpresak 24 orduren buruan sortu ahalko dira, behin-behineko adierazpen batekin. Gainerako dokumentazioa aurkezteko sei hilabete emanen dira.

Lehen xedapen gehigarria. Ekonomikoki menpekoak diren langile autonomoen kontratuen erregistroa.

1. Nafarroako Gobernuak Estatuko enplegu Zerbitzu Publikoak eginiko kudeaketa-gomendio gisa hartuko du ekonomikoki menpekoa den langile autonomoaren eta bezero-enpresaren artean jarduera ekonomiko edo profesional bat egiteko

kontratuak erregistratzeko jarduera, ekonomikoki menpekoa den langile autonomoaren kontratua dela-eta Lan Autonomoaren Estatutua garatzen duen otsailaren 23ko 197/2009 Errege Dekretuan ezarritako terminoetan. Jarduera horrek bere baitan bilduko du honakoak erregistratzea: eginiko kontratuak, egin diren kontratu-aldaketak eta kontratuen amaierak.

2. Horretarako, berariazko erregistro bat sortuko da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan, eta hari eseliturako zaizkio aipatutako erregistroak funtzionatzeko jarduera material, tekniko edo zerbitzukoak.

3. Kontratu horiek estatu-izaerakoak eta bakarrak izatea bermatze aldera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren bitartez, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari informazioa emanen dio kontratu horien erregistroari buruz, bai eta haien amaierari buruzko informazioa ere, menpekoak diren langile autonomoen altak eta bajak eta izandako aldaketak izapidetze aldera.

4. Halaber, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak aldizka Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluari informazioa emanen dio kontratu horien erregistroari buruzko datuen gainean, bai eta izaniko alta, baja eta datu-aldaketen gainean ere.

Bigarren xedapen gehigarria. Atzerritarrei beren kontura lan egiteko baimena ematea.

Enpleguaren arloko departamentu eskudunak bere gain hartuko ditu prozedurak hasi, instruitu eta ebatzeko eginkizunak, prozedurak ebatzekoak eta ebazpenak jakinaraztekoak, bai eta administrazioarekiko errekurtsoen prozedurak ere, kasua bada, Nafarroako Foru Komunitatean jarduera ekonomiko edo profesionala beteko duten atzerritarren beren kontura lan egiteko hasierako baimeak, betiere sartzearen eta egoitza izatearen arloko Estatuko eskumenekin koordinatuta eta Estatuko legediak ezarritakoaren arabera, eginkizunen eta zerbitzuen transferentziari buruzko kasuko errege dekretuan ezarritako terminoetan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Lan autonomia errepide bidezko salgai-garraioaren sektorean.

1. Nafarroako Gobernuak prestakuntzako eta lanbide-birziklatzeko berariazko programa bat diseinatuko du errepide bidezko salgai-garraioaren sektorea uzten duten Nafarroako langile autonomoentzat, espezializazio bat lor dezaten enplegurako itxaropen errealak eskaintzen dituzten eta garraioaren sektorearekin lotuta dauden bestelako jardueretan.

2. Errepide bidezko garraioaren sektoreak lehia askearen sistema izanen du arau. Horrenbestez, ezin izanen da mugarik edo murriztapenik ezarri, ez eta garraio-jarduera desberdinetan aritzeko gaituntza-tituluak emateko ere, salbu eta garraioaren lanbidean sartzeko Europako arauetan ezarrita daudenak. Horrela, baldintza horiek betetzen dituzten langileek garraioaren jardueran lan egin ahal izanen dute Nafarroako Foru Komunitatean salgaien eta bidaiarien garraio azpisektore desberdinetan, horretarako kasuan kasuko garraio-motarako ibilgailu bat izatea hasierako bestelako baldintzarik gabe.

Laugarren xedapen gehigarria. Jarduera uzteagatiko laguntzak.

Behin jarduera uzteagatiko prestazioaren estatu-araua onetsi ondoren, Nafarroako Gobernuak aztertuko du zein aukera duen foru erkidegoko lurraldean garatzen diren jarduera ekonomiko edo profesionalak guztiz edo hein batean uzteagatiko laguntza osagarriak emateko.

Bosgarren xedapen gehigarria. Azterlan sektorialak.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, azterlan batzuk eginen dira, non honako alderdiak jasoko baitira:

1. Sektoreko autonomoak identifikatzea eta haien arazo berariazkoak aztertzea, bai eta berariztasun horiek lan baldintzetan dauzkaten eraginak ere (ordainsariak, lana eta familia bateragarri egitea, gizarte babesa eta abar).

2. Egoerari buruzko diagnosi bat, honakoei buruzko aipamen bereziekin: merkatuko lehiakortasun-ahalmena, prestakuntzako gabeziak, finantzaketa, I+G+B eta enpresen arteko lankidetzahalmena.

3. Jarduketa planak, hobetzeko proposamenak eta araugintzako aukerak, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

Seigarren xedapen gehigarria. Lege honen erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuak, hiru hilabeteko epean, araupetze proposamenak aurkeztuko ditu langile autonomoengan eragina duten honako alderdietan:

1. Salmenta ibiltaria eta autonomoengan eragina duten merkataritza-modu desberdinak.

Gai horretan, eta salmenta ibiltariari dagokionez, kontuan hartu beharko da udalek egiaztatu beharko dutela udal baimena eskatu duten pertsona fisiko edo juridikoak alta emanda egotea jardura ekonomikoen gaineko zergako kasuko epigra-

fean eta Gizarte Segurantzaren kasuko araubidean, eta lan arriskuen prebentzioaren arloko arau orokorrak eta berariazkoak betetzen dituztela.

Halaber, aintzat hartuko dute udalei egokituko zaiela beren barrutietan salmenta ibiltarian jarduteko baimenak ematea, beren arau berariazkoen arabera eta indarreko legedian jasotakoaren arabera, kasuan kasuko eskumen-esparruaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, eta eskuragarri dauden baimenen kopurua mugatua denez, xede horretarako gaitutako zoru publikoa eskasa izatearen ondorioz, haien iraupena ez da mugagabea izanen, baina luzagarriak izan ahalko dira; nolahi ere, aukera eman beharko dute inbertsioak amortizatzeke eta inbertitutako kapitalen ordainketa ekitaliborako.

Azoka ibiltariak berariaz eta ohikotasunez egiteko lurzoru publikoaren kontzesioak diren kasu guztietan, baimenak iraunkorrak eta eskualdagarriak izan ahalko dira, kasuko legedi autonomikoak ezarritako baldintzetan.

2. Kontratazio administratiboari buruzko lege bat, estatu-araudia garatzeko, arreta berezia eskainita esparru honen barruan autonomoek eta enpresa txikiak duten posizioari, eta prozedurak erregulatuz, autonomoak berdintasun-baldintzetan lehiatu ahal izan daitezen bestelako entitate juridikoekin.

3. Gure erkidegoak hirigintzaren arloan dauzkan eskumenen esparruan, berariazko araudi bat proposatuko da autonomoentzat, hirigintza-jarduketak egitea bideratuko duena, hiri espazioak hobetzeko bidean: aparkalekuak, oinezkoentzako guneak egitea, zama-lanetarako eremuak, produktak biltegitratzeko eremuak eta abar. Halaber, hiri-espazio berrietarako konponbideak proposatuko dira, autonomoek eta merkatariek osatzen duten mix-ari euste aldera.

4. Zenbait terapia naturaletan jarduteko baldintzak.

5. Landa ingurune profesionalen eta langile autonomoen jarduerak antolatu, sustatu eta gartztea.

6. Eraikuntzaren sektoreko autonomoen erregulazioa. Horren barrenean, Nafarroako Gobernuak, ordezkari handiena duten langile autonomoen lanbide-elkarteekin eta sindikatuarekin batera, bultzatuko du eraikuntzaren txartel profesionala sor dadila. Txartel horretan, izan ere, langile autonomoaren lanbide- eta prestakuntza-bizitza jasoko da.

Hura lortzeko gutxienezko baldintza izanen da lan arriskuen prebentzioaren arloan gutxienez ere 50 orduko modulu bat ikasi izana.

7. Jarduera artistiko jakin batzuk gure erkidegoan antolatzea.

8. Paketeen garraioaren sektorean eta horrekin lotutako bestelako zerbitzuetan diharduten autonomoen kopuruak gure erkidegoan bizi duen gorakada eta hazkundera dela eta, berariazko arauak emanen dira jarduera hori antolatu, bultzatu eta garatzeko.

9. Autonomo immigranteak eta haien gizartean integratzea.

10. Emakume autonomia eta esparru horretako berdintasun politikak.

11. Gazte autonomoak eta haien Nafarroako gizartean integratu eta laguntzea, gazteentzako autoenplegu plan baten bitartez.

12. Ostalaritza eta sektore horretako autonomoengan eragina duten baimenak, arau-hausteen eta zehapenen araubidearekin batera.

13. Finantzaketarako sarbidea eta I+G+Brako sarbidea autonomoentzat eta ekintzaileentzat.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Ekonomikoki Menpekoak diren Langile Autonomoei buruzko azterlana.

Hiru hileko epean, arau honek indarra hartzen duenetik, Nafarroako Gobernuak azterlan bat egingen du Nafarroako Foru Komunitatean lan egiten duten eta Ekonomikoki Menpekoak diren Langile Autonomoei buruz. Azterlanak aukera emanen du autonomo horien lan baldintzak eta jarduera-sektoreak ezagutzeko.

Lehenengo xedapen iragankorra. Lan Autonomoaren Kontseilu Autonomoaren eraketa.

Hilabeteko epean, Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua erregulatzeko arauak onetsiko dira, eta horren ondoren berehala eratu da.

Bigarren xedapen iragankorra. Nafarroako Foru Komunitateko Lan Autonomoan Gatazkak Ebazteko Sistema Estrajudiziala abian jartzea.

1. Lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Gatazkak Ebazteko Sistema Estrajudiziala eratu eta materialki funtzionatzen hasiko da.

2. Funtzionatzen hasten ez den bitartean, ekonomikoki menpekoak diren langile autonomoen lanbide-arabidea dela eta egin beharreko ekintza judizialen aurreko adiskidetze edo bitartekaritza jardura guztien kudeaketa Nafarroako Lan Auzitegiak hartuko du bere gain.

Hirugarren xedapen iragankorra. Lan autonomoaren lehenengo plan estrategikoa egitea.

Sei hilabeteko epean, Nafarroako lan autonomoaren eta ekintzaileei laguntzeko lehenengo plan estrategikoa egin eta onetsiko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Lege honetan xedaturikoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak indarririk gabe gelditzen dira.

Azken xedapenetako lehena. Parlamentuari informazioa ematea.

1. Nafarroako Gobernuak urtero foru parlamentuari informatuko dio arau honetan jasotako aurreikuspenen betearazpenari buruz.

2. Txosten horri aholku-organoen irizpenari gehituko zaio.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

